

NAFARROAKO GOBERNUAREN 2019rako PUBLIZITATE INSTITUZIONALAREN URTEKO PLANA

1. Komunikazio Zerbitzua arduratuko da Nafarroako Gobernuaren publizitate-kontratuak kudeatzeaz. Horretarako, Publizitate Instituzionaleko Negoziatuaren eta sustapen-ekintzak bultzatzen dituzten unitateen laguntza izango du.
2. Komunikazio Zerbitzuak publizitate-kanpaina bakoitzaren hedabideen plana diseinatu du (alegia, dagoen aurrekontuaz baliatuta ahalik eta zabalkunde handiena lortzeko beharrezkoak diren publizitate-espazioak kontratatu), kanpainaren ezaugarri espezifikoak eta helburuko biztanleak zein diren kontuan hartuta.
3. Hedabideak kontratatu behar izanez gero, kontratatutako iragarki eta espazioen kopurua zehazteko, publizitate-kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudia hartuko da aintzat (1/2003 Foru Araua, Toki Administrazioari kontseilariarena, Gobernuaren bozeramaile gisa), eta, audientziaren irizpide nagusia neurtzeko, berri, 2018ko Nafarroako Audientziaren Azterketa aplikatuko, CIES, S.L. enpresak egindakoa (hedabideek, publizitate-agentziek eta Nafarroako Gobernuak berak nahiz beste erakunde batzuek emandako finantzaketarekin).
4. Nafarroako hizkuntza ofizialen erabilera publizitate-mezuetan: oro har, Komunikazio Zerbitzuak Nafarroako bi hizkuntza ofizialak erabiliko ditu publizitate-mezuak diseinatzean eta prestatzean, 103/2017 Foru Dekretuaren arabera (103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan).
5. Nafarroako Gobernuaren sinboloen erabilera publizitate-mezuetan: Komunikazio Zerbitzuak Nafarroako Gobernuaren logotipoa sartuko du publizitate-mezu guztietan, irudi gisa edo hitzez, 4/2016 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera (4/2016 Foru Dekretua, urtarrilaren 27koa, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen).
6. Publizitate-espazioak kontratatzeko 40.000 euro edo gehiago erabiltzen dituzten publizitate instituzionaleko kanpainak izango dira kanpaina nagusiak. Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak kanpaina nagusi hauek finantzatzeko ditu gutxi gorabehera 720.000 euroekin (BEZa barne), 2019ko ekitaldiko B1100 B10001 2262 921500 («Publizitate instituzionala») aurrekontu-partidaren kontura:

HASIERA-DATA	KANPAINAREN ARRAZOIA	UNITATE SUSTATZAILEA	AURREIKUSITAKO INBERTSIOA
Urtarrila	Eskola publikoa sustatzea (aurrematrikulazioa)	Hezkuntza Departamentua	40.000
Urtarrila	Gazte- emantzipaziorako laguntzak sustatzea	Eskubide Sozialetako Lehendakariordetza	40.000
Urtarrila	Organoak eta odola ematearen inguruan sentsibilizatzea	Osasun Departamentua	40.000
Otsaila	Mendekotasuna duten pertsonentzako zaintzaile profesionalen kontratazioa sustatzea	Eskubide Sozialetako Lehendakariordetza	40.000
Otsaila	Euskararen erabileraren inguruan sentsibilizatzea eta hari ospea ematea	Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua	40.000
Otsaila	Nafarroako nekazaritza- elikagaien kontsumoa sustatzea	Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua	40.000
Otsaila	Irakasleen ospea sustatzea	Hezkuntza Departamentua	40.000
Martxoa	Borondatezko lana sustatzea	Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua	40.000
Martxoa	Kirolean balioak izatearen inguruan sentsibilizatzea	Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua	40.000



Martxoa	Errepidean doazenek drogarik eta alkoholik ez hartzea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	40.000
Apirila	2018ko errenta-aitorpenak aurkeztea	Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	40.000
Ekaina	Indarkeria matxista saihestea	Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua	40.000
Iraila	Lan autonomia sustatzea	Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetza	40.000
Iraila	Informazio publikoa kontsultatzeko eskubideen inguruan kontzientziatzea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	40.000
Urria	Ibilgailu elektrikoak eros daitezen sustatzea	Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetza	40.000
Urria	Jokabide suizidak saihestea	Osasun Departamentua	40.000
Azaroa	948 Merkatua sustatzea	Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua	40.000
Azaroa	Nafarroaren Egunekeo ekitaldiak hedatzea	Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua	40.000

7. Kanpaina nagusi horietarako inbertsio gisa ezarritako zenbatekoek publizitate-sormeneko kontratuak nahiz publizitate-espazioen kontratuak finantzatu ahal izango dituzte. Publizitate-kanpaina horiek sustatzen dituzten departamentuek aurrekontuko beren partidetatik hartutako baliabide ekonomikoak erabili ahal izango dituzte beren kanpainetan publizitate-sormeneko kontratuak egiteko edo publizitatea sartzeko kontratuatarako zenbatekoak handitzeko.

8. Plangintza honetan jasotako kanpaina instituzionalak are gehiago zabal daitezzen Nafarroako Gobernuak eta haren departamentuek darabiltzaten sare sozialetan eta, horretaz gain, kontratazioa bizkortzeko, ekitaldi honetan Komunikazio Zerbitzuak 50.000 euroko partida espezifiko bat izango du lehen aldiz (B10001 B1100 2262 921503: «Sare sozialetako publizitatea»).

9. Gobernu-ekintzaren garapena eta ongi justifikatutako komunikazio-beharrak kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak departamentuek plangintza honetako 6. puntuan jasota ez dauden publizitate instituzionaleko beste kanpaina batzuk ere sustatu ahal izango dituzte publizitatea kontratatzeke aurrekontuan dituzten kredituak agortu arte.

10. Plangintza honetan ez daude jasota Nafarroako Gobernuak 2019ko ekitaldian egin litzakeen eta publizitate-mezuak argitaratzea ekar lezaketen laguntza-kontratuei dagozkien gastuak, ezta sustapen-jardueren beste kontratu batzuei dagozkienak ere (azoketara joatea, kartelak egitea, etab.). Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak egindako mota horretako kontratuak 2019ko gastu-aurrekontuko partida hauen bidez finantzatuko dira: B10001 B1100 2262 921502, «Laguntza-jarduerak» izenekoa eta 30.000 eurokoa; eta B10001 B1100 2266 921500, «Sustapen-jarduerak» izenekoa eta 11.043 eurokoa.

11. Komunikazio Zerbitzuak Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko inbertsioei buruzko exekuzio-txosten bat argitaratuko du sei hilez behin Gobernu Irekiaren Atarian.